

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1436

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzen 2020ko deialdian egindako aldaketak («Lehen Aukera» programa).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25ean egin zuen bileran hartutako erabakiaren bidez, onartu du gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko «Lehen Aukera» programaren 2020ko laguntza-deialdia aldatzea. Bada, Lanbideren zuzendari nagusiari dagokio aldaketok argitaratzea, hala xedatuta baitago Lanbideren estatutuen 10.2 artikularen p) apartatuan (maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren estatutu horiek).

Azaldutakoagatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Argitara ematea gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko «Lehen Aukera» programaren 2020ko laguntza-deialdian egindako aldaketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2020ko otsailaren 25eko bileran hartutako erabakiaren bidez onartua (ebazpen honen eranskinean jasota dago).

Bigarrena.— Deialdia aldatzea onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 26a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESETAN KONTRATATZEKO 2020KO
LAGUNTZA-DEIALDIAN EGINDAKO ALDAKETAK. LEHEN AUKERA PROGRAMA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko abenduaren 11ko bileran hartutako erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeke 2020ko laguntza-deialdia onartu zuen. Lehen Aukera programa 2019ko abenduaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 245. zenbakian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko abenduaren 11ko Ebazpenaren bidez.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatutako gazte langabeen kontratazio egonkorra eta kalitatekoa sustatzeko, egokitzen jotzen da kolektibo horretan dauden kontratazio mugagabeko dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea eta gazte horiek enpleguan jarraitzea bermatzeko baldintzak sendotzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2020ko otsailaren 25ean egindako batzarrean, onartu du euskal enpresetan gazteak kontratatzeke «Lehen Aukera» programaren 2020ko laguntza-deialdia aldatzea, zehaztapen hauen arabera:

Lehenengoa.— Deialdi horretako 6.1 artikuluko taula aldatu eta honela idatzita uztea:

Titulazio akademikoa	12 hiletik beherako praktika-kontraturako dirulaguntza	12 hileko edo gehiagoko praktika-kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagabeko diru-laguntza
Lizentzia, ingeniariaritz, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniariaritz tekniko, arkitektura tekniko eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €

Bigarrena.— Deialdi horretako 6.2 artikuluko taula aldatu eta honela idatzita uztea:

Titulazio akademikoa	12 hiletik beherako praktika-kontraturako dirulaguntza	12 hileko edo gehiagoko praktika-kontraturako dirulaguntza	Kontratu mugagabeko diru-laguntza
Lizentzia, ingeniariaritz, arkitektura, masterra (Bologna plana), unibertsitate-diplomatura, ingeniariaritz tekniko, arkitektura tekniko eta unibertsitate-gradua (Bologna plana)	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

Hirugarrena.— Aipatu deialdiaren 9.1 artikulua aldatzea eta honela idatzita uztea:

1. Funts publikoak efizientziaz erabiliko direla bermatzeko, praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratuen gutxienerako iraupena eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, 24 hilabetekoa izango da gutxienez.

Laugarrena.— Laguntza-deialdia EHAAr argitaratzen denetik aurrera aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaizkie erabaki honen bidez onartutako aldaketak.